



URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA

Covid-19ak eragindako osasun larrialdi egoeraren aurrean, etxean geratzeko kanpaina martxan da

Covid-19 edo Koronabirusaren aurka hainbat neurri jarri dira, eta neurri hauek birusaren hedapena murriztu eta osasun zerbitzuak gainezka ez egitea dute helburu.

URUMEA COVID-19

Covid 19 edo Koronabirusaren hedapenaren aurka, hainbat neurri jarri dira, gaixotzea sahiesteaz gain noski. Izan ere, birusaren hedapena murriztea izan da helburuetako bat, eta bestea, osasun zerbitzuak gainezka ez egitea. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak osasun larrialdi egoera indarrean jarri zuen EAEn, beraz, herritarrei konprometua izan dezaten eskatzen dute, norbere etxean gelditu, eta birusa ez hedatzeko neurriak hartuz.

Herritarrek, euren buruak babesteko hainbat gomendio eman ditu Eusko Jaurlaritzak. Aipatu dute, oso garrantzitsua dela eskuak maiz garbitzea, jaboiarekin. Eztula egitean, ahoa eta sudurra estaltzea, ukondo edo zapi batekin, gainera azaldu dute, «zapia berehala bota eta garbitu eskuak alkohol oinarria duen eskuetako desinfektatzaile batekin, edo ur eta jaboiarekin». Jendearekin, metro bateko distantzia uzteko ere azpimarratu dute, «eztula egiten duten edo sukarra duten pertsonengandik». Ahoa, begiak eta sudurra ez ukitzea oso garrantzitsua dela ere aipatu dute, eta azkenik, «etxean eta leku publikoetan eskuarekin ukitzen diren gainazalen garbiketa areagotu» behar dela ere argi utzi dute.

Hernanin eta Astigarragan, neurriak

Sagardotegiak itxi egin dira, horrekin batera, Hernaniko tabernak, haurrentzako parkeak eta baita jangela soziala ere. Adinekoen zentroan ere, bisitak

debekatu egin dira. Hala ere, «jantoki sozialen erabiltzaileak babesgabe ez uztearren, otordua etxeetara eramateko aukera eskainiko diete Udal Zerbitzu Sozialek».

Gainera, Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzaren gomendioak aintzat hartuta, murrizketa batzuk egin ditu, Herritarren Harrera Zerbitzuan hain zuzen. «Ohiko ordutegiarekin mantentzen da baina modu presentzialean soilik bideratuko dira ezinbestekoak diren tramiak. Herritarrei eskatzen zaie, zerbitzu hori soilik, beharrezkoa dutenean erabiltzeko».

Bihartik, jendea elkartzeko aretoak ixteko dekretua indarrean egongo da.

Horrez gain, Astigarragako Udalak hainbat erabaki hartu ditu, hala nola, «haur parkeak ixtea erabaki dugu haurren arteko kontaktua ahalik eta gehien mugatzeko. Haurreskola eta hezkuntza zentroak ixteko erabakiaren norabide berean, beharrezkoa da haurren arteko kontaktua mugatzea. Ikastetxeak itxi ondoren haur guztiak haur parkeetan elkarrekin jolasean ibiltzen badira ez dugu gauza askorik aurreratzen. Ondorioz, gurasoei eskatzen dizuegu neurri horiek betetzeko eta erantzukizunez jokatzeko». Beste alde batetik, terrazak jartzeko lizentziak bertan behera geratu dira eta tabernei agindu zaie terrazak kentzeko. Neurri honen helburua da jende pilaketak

mugatzea, izan ere, «eguraldi ona egiten duenean jende ugari bildu ohi gara terrazetan».

Hernanin, beste hainbat talde eta elkarteek, euren negozio eta egoitzak ixtea erabaki dute, prebentzio neurriak hartuz. Dobera Euskara Elkarteak, bertan behera utzi ditu ikasturtean zehar landuko zituen egitasmoak, eta datozen egunetarako antolatuta zeuden jarduerak, hala nola, *Laburbira*, martxoaren 25ean, eta mintzapraktika-ko parte hartzaileekin triki-pintxopoteoa, martxoaren 26an izango zena, «biak bertan behera gelditzen dira». *Bota Bertsola!* egitasmoari dagokionez, emailer parte hartzeko aukera dagoela jakinarazi dute. Egitasmo eta ekintza asko bertan behera geratu diren arren, Dobera Euskara Elkarteak langileak lanean jarraituko dute, eta azpimarratu dute, edozer gauza izanez gero, kontaktuan jartzeko Doberarekin, 943 33 27 99 telefonora deituz, edo *dobera@dobera.eus* era idatziz.

Koronabirus kasuetarako larrialdi zenbakia, 900 20 30 50 da.

Hernaniko Kontrakantxa Gaztetxeak ere atekak itxiko ditu, denbora batez. Adierazi dute, egoerak eskatzen duen ardurarekin jokatzuz, hurrengo asteetan ekintza publikoetarako gatzetxea itxita mantenduko dela.

Elkarteak ere, itxita

Hainbat elkarteek ere bat egin dute prebentzio neurri honekin, hori horrela, Txantxangorri elkarte eta Santa Barbara itxita egongo dira, «noiz arte ez dakigu». Era beran, mus txapelketak eten egingo direla ere aipatu dute, Xalaparta elkarteak besteak beste. Horrez gain, Lan-

Behar dutenei laguntzeko, zaintza taldea laister abian

Zaintza talde bolondres bat sortzen ari da Urumea Herri Gunea, Covid-19a dela eta.

HERNANI BOLONDRES TALDEA

Egungo egoera ikusita, zaintza talde bolondres bat sortzen ari da Urumea Herri Gunea, «arraisku gehien duen jendeari, etxetik kanpoko enkarguak egiteko laguntzeko asmoa daukagu, horrez gain, haurrak etxean ziantze-

koa ere».

Bolondres egiteko aukera dago oraindik, eta taldearen parte izan nahi ezgero edota, behar duten horiei laguntza eman nahi izanez gero, 663 473 045 telefonora WhatsApp bat bidal. Edo 690 145 760 zenbakira deitzeko aukera ere eskaintzen dute.

dare, Peña Otaño eta Elur Txori elkarteek ere, atekak ixteko erabakia hartu dute.

Astigarraga, Hernani eta Urnietan, mezarik ez

Astigarraga, Hernani eta Urnietako elizak, itxi egingo direnez, ez da mezarik ospatuko, «bestelakorik esan arte, etxetik ez ateratzeko berebiziko gomendioa egiten ari da Osakidetza, eta erresposabilitateak eta kezkek, hartara behartzen gaituzte».

Etxean gelditzeko gomendiak

Herritarrei, etxean gelditzeko eskaera egin zaie, Covid-19 birusaren hedapena sahiesteko, eta osasun zerbitzuak gainezka ez egiteko. Haurrak ezin dutenez ikastolara joan, eta etxean gelditzeko eskaera luzatu denez, entretenimendua behar dute, hona hemen hainbat gomendio; bizkotxo bat egitea etxean, antzerkiak ere egin daitezke, puxika batekin boleibolera jolastu, keinuak egitea edota pelikule-

tara jolastea, etxean zehar mezuak ezkutetzea, irratsaio bat grabatzea, abesti bat asmatzea, eta hamaika jolas gehiago daude etxean modu erraz batean egin daitezkeenak.

Bihartik, jendea elkartzeko aretoak ixteko dekretua indarrean

Bihar hasita tabernak, kafetegiak, jatetxeak eta jendea elkartu daitekeen aretoak ixteko dekretua indarrean jarriko du Espainiako Gobernuak.

Osakidetza, Covid-19ak eragindako kasuetan, ateratako azken datuei dagokionez, 104 kasu positibo egon dira EAEn, 222 pertsona ospitalizatuak izan dira, 19 pertsona hilak eta guztira, EAEn 521 kasu positibo izan dira.

Covid-19 kasuetarako

Eusko Jaurlaritzak, adierazi du, Covid-19 birusaren sintoma larriak izanez gero, 900 20 30 50 telefonora deitu behar dela, Koronabirus kasuetarako zenbakia baita. **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
* Beilatokiak
* Erresketak
* Lekualdatzeak
* Eskelak, korroak...

AROZA TABERNA

Animo guztieil

OTORDUAK ETXERAINO ERAMATEN DITUGU

Deitu 695 571 944

Txantxilla kalea, 4 behea
HERNANI

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, martxoaren 23ra arte:
kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarteak Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- / Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
- / Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- / Iniziatiba eta enpatia.
- / Publizitate edo komunikazio ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAI:

- / Kontratua: sei hilabetetarako.
- / Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:

- / Urumea bailara ezagutzea.
- / Doberako bazkide izatea.
- / Tokiko hedabideak ezagutzea.
- / Publizista lanetan esperientzia.
- / Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
- / Sare sozialak menperatzea.

Kronika DOBERA

Baldintzak betetzen dituzien artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

EGURALDIA
GAUR Igandea eguzkitsua hasiko da, baina arratsaldean goitik behera aldatuko da. Goiza lasaia eta epela izango da, hodeiak eta ostarteak ikusiko ditugu, baina okertzera egingo du egunak.
Min.6° / Max.20°

BIHAR Giro umela izango dugu, lainotuta egongo da, euria egingo du eta gainera tenperaturak nabarmen egingo du behera. Iparraldeko haizea finak hotz sentazioa areagotuko du. Min.7° / Max.13°

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia Auzo Udala

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ISUNO
EUSKARAZ
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Haurren kultura erdigunean jartzen duen OinHerri herri hezitzaileen sarean, Hernani

Otsaileko Plenoan aho batez onartutakoa asteartean eraman zen paperera, Hernaniko Udala eta OinHerriren arteko hitzarmenarekin.

HERNANI UDALA

Herri hezitzaileen Euskal Herriko sarea da OinHerri, eta pasa den asteartez geroztik, sare horren parte da Hernani ere. Otsaileko Plenoan aho batez onartu zen bertan sartzea, eta asteartean sinatu zuten hitzarmena Xabier Lertxundi alkateak eta Joxe Mari Agirretxe, OinHerriko ordezkariak.

OinHerri herri hezitzaileak proposatzen duen eredia zazpi kontzeptutan oinarritzen da, eta haurren kultura jartzen du erdigunean.

Haurrak, euskera eta parte-hartzea, zazpi printzipoen oinarri

Sareko parte izatea onartuta,

sarearen oinarri diren zazpi printzipioekiko konpromezua hartu du Hernanik: haurreran kultura aitortzea eta errespetatzea; parte hartzeko eta erabakiak hartzeko aukera eskaintzea; aniztasunean berdintasunarekin izateko aritzea; ingurumenarekin bizitzea; ingurumen kulturala zaintzea; harremanetan, euskera lehenestea; eta elkarlanean aritzea eta auzolana sustatzea, komunitatean bizitzea.

Dena den, haurrak aipatzean, «jendarteko zaurgarritasunarekin» ari direla zehaztu zuten: «etorri berriak, gazteak, emakumeak, adinduak, aniztasun psikiko edo funtzionala dutenak... hau da, pertsona guztietan ari gara».

Hernaniko lan-taldea, hiru zutabe

Sarearekin bat egiteak dakartzan konpromezua betetzeko, Hernaniko lan-taldea hiru zutabe izango ditu, hitzarmenean jasotakoaren arabera: Udala, Hezkuntza eta Herrigintza. Hernanirako hainbat egitasmo pro-



Asteartean sinatu zuten hitzarmena Udalak eta OinHerriko ordezkariak.

posatuko dituzte, beti, «herrian ezarritako lehentasunen arabera. Saretzeko bokazioa izango du, parte-hartze metodologiak erabiliz, parte hartzen dugun pertsona izatetik haratago, partaide izatera igarotzeko helbu-

ruarekin».

Era berean, herriko beste ekimenekin koordinatuta ariko direla ere azpimarratu zuten, «lehendik dagoena ez ordezkatzeko, ez dagoena sortzeko eta herriko bestelako prozesuak

kontuan hartzeko, eta ahal dela, bateragarri edo osagarri egiteko».

Sareko parte diren herri guztietako esperientziak OinHerriren www.herrihezitzailea.eus webgunean bilduko dira. **K**

Langabetuak kontratatuzko diru-laguntzak, Beterri-Buruntzan

Lanbiderekin elkarlanean izan dira eskualdeko hainbat udal, haien artean, Astigarraga eta Hernani. Abenduan izan zen proiektuaren bigarren fasea, eta orain hirugarren eta azken faseari emango zaio hasiera.

ASTIGARRAGA HERNANI UDALA

Lanbiderekin elkarlanean, eskualdeko hainbat udal izan dira, hala nola, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Lasterte-Oria eta Usurbil, «denon laguntzarekin atera da ekimena aurrera». Abenduan amaitu zen proiektuaren bigarren fasea, eta aldi horretan, eskualdeko enpresek subentzionatutako hiru eta sei hilabete bitarteko kontratuak egiteko aukera izan dute.

Orain berriz, hirugarren eta azken faseari eman zaio hasiera, «Beterri-Buruntzako enpresek errekurso honekin jarraitzeko aukera dute». «Egin beharreko kontratuaren gutxie-

neko iraupena, hala badagoko, hiru hilabetezko izango da, lanaldi osokoa edo partzialekoa. Hori horrela eta hala badagoko, 3.000 euroko diru-laguntza jasoko da lanaldi osoko kontratuetan, aldiz 1.500 eurokoa jasoko da lanaldi partzialeko kontratuetan». Eta gaineratu

Bigarren fasean, eskualdeko enpresek, subentzionatutako hiru eta sei hilabete bitarteko kontratuak egiteko aukera izan zuten.

da, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak kontratatzeagatik, diru-laguntza horiek handiagoak izan daitezkeela.

3.000 euroko diru laguntza jasoko da, lanaldi osoko kontratuetan.

Kontratazioei buruzko informazioa, webguneetan Kontratazioei buruzko informazio gehiago nahi bada, udalaren webguneetan edo udaletako sail zein bulegoetan aurki daitezke.

Kontratuak egiteko azken epea, apirilaren 1a izango da, aldiz kontratazioerako laguntzen eskaeren aurkezpena, apirilaren 15ean amaituko da.

Gaineratu dute, diru-laguntzei buruzko eskubideak, «kasu guztietan», Andoaingo Udalaren enplegu-arloan egin behar direla edo telefono honetara deitu 943 304 221. **K**



Iñigo Legorburu ezkerrean, eta Felix Marañña eskuinean.

Bi literatura sari etxera, Legorburuk

HERNANI LITERATURA SARIA

Pasa den asteburuan, bi sarirekin etxeratu zen Iñigo Legorburu, bi sariak ere, bi literatura genero ezberdinetan lortuak izan dira.

Gainera, lan hau, bere

bertsoak eta beste irabazleekin batera, liburu batean argitaratuak ikusiko ditu Legorburuk. Felix Marañña kazetari eta idazleak sortutako liburuan, hain zuzen, *Birmingham* bere argitaletxearen bidez.

IRAGARKI MERKEAK

Lokal-garajea salgai, Arantzazu Plazan (udaletxe atzean). Bi kotxerentzako dauka tokia, eta zuzenean kalera joateko irteera. **Deitu: 699 492 235**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**